



**2024KO EKAINAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko ekainaren hogeita zazpian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Aitana Amondarain Eskisabel Kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko maiatzaren 30ean egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- 2023KO KONTU OROKORRA.-

2023ko ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuetarako Batzorde Bereziak 2024ko maiatzaren 9an egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2024ko maiatzaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 baliodun egunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, 2023ko ekitaldiko kontu orokorra onartu egin du.



Kontu Orokor honek udalaren 2023ko Kontu Orokorra eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2023ko urteko kontuak hartzen ditu barne.

IV.- UDAL INBENTARIOAREN EGUNERAKETA.-

2023ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren eguneraketa, 2023. urtean zehar izandako aldaketak barne hartzen dituena, onartzea proposatu dio Ogasun Batzordeak Udalbatzari.

2023ko abenduaren 31n, Udal Inbentarioa osatzen duten elementu guztien erosketa balioa 47.993.543,94 €-koa zen, amortizazio pilatua 15.464.480,71 €-koa eta kontabilitate balioa 32.529.063,49 €-koa.

Osoko Bilurako partaide guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, proposamena aho batez onartu da.

V.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETA KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA.-

Lazkaoko Udaleko zerbitzu buruak, eraikinen garbiketa zerbitzua emateko Udalak Gureak Garbitasuna, S.L. enpresarekin sinatua duen kontratuaren bigarren luzapena proposatu du.

Udal honek 2020ko urriaren 5ean izenpetu zuen Gureak Garbitasuna, S.L. enpresarekin Lazkaoko Udal eraikinen garbiketa zerbitzua emateko kontratua, lehiaketa ireki bidez ateratako lizitazioa berari esleitu zitzaionez.

Kontratu hau hiru urterako izenpetu zen eta urte beteko 2 luzapen egiteko aukera dago. Hiru urteko epea 2023ko urriaren 5ean bete zen eta lehen luzapena egitea erabaki zen 2023ko uztailaren 20ko Osoko Bilkuran. Lehen luzapen hau 2024ko urriaren 5ean amaituko da.

Lazkaoko Udaleko zerbitzu buruak 2024ko ekainaren 18ko data daraman idatzia aurkeztu du Udal honetan, bere aldetik urte beteko bigarren luzapena egiteko proposamena eginez.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio kontratu honetan bi ekintza izan direla behintzat: batetik lehen ere luzapenen bat onartu dela, eta bestetik zerbitzu honen kontratua handitu egin dela. Ikastolaren eraikin bat, lehen udaleko langile batek garbitzen zuela, baina langile horrek erretiroa hartu zuela eta lanpostu hori amortizatzea erabaki zela eta zerbitzu hori enpresari esleitzea. Hori ez zutela begi onez ikusi. Beren ustetan Udalak jarraitu beharko zukeela zerbitzu hori ematen, Lanpostu Zerrendan sartuta egonik, eta horregatik abstenitu egin zirela. Oraingo honetan argumentu beragatik ere abstenitu egingo direla.

Hau guztia honela, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 6 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, Gureak Garbitasuna, S.L.-re-





kin izenpetutako Lazkaoko Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua urte betez luzatzea erabaki du.

VI.- BERDEGUNEAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udaleko herriguneko berdegune, parke, lorategi pasealeku eta zuhaitziak zaindu eta mantentzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea prestatu dute Udal honetako zerbitzu teknikoek, zerbitzu hori berriz ere lizitatzeko.

Lizitazioaren urteko oinarrizko aurrekontua 169.000 €-koa da, gehi BEZari dagoen 35.490 € (%21), guztira 204.490 €-koa.

Zerbitzu hori gauzatzeko epea 3 urtekoa da, eta urtebeteko iraupena duten bi luzapen egin ahal izango dira.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ez dutela hau onartzeko eragozpenik, eraikinen garbiketarekin esan duten bezala, zerbitzu hau ere gomendagarria iruditzen zaiela Udal langileen bitartez ematea, baina kasu honetan ez dagoela Lanpostuen Zerrendan sartuta beraz, hau onartu egingo dutela.

Ondorioz, eta 2017ko SPKLren 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrituz, aho batez, honako hau erabaki da:

Lehena.- Lazkaoko Udalaren hiriguneko berdegune, parke, lorategi pasealeku eta zuhaitziak zaindu eta mantentzeko zerbitzuaren kontratazio espedientea, eta kontratua arautuko duten administrazio-klausula berezien plegua eta baldintza teknikoek plegua onartzea.

Bigarrena.- Zerbitzua prozedura ireki bidez esleitzeko lizitazio deialdia egitea.

Hirugarrena.- Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, indarrean dagoen aurrekontuko 227.11.171.00 aurrekontu-aplikazioaren kontura.

Laugarrena.- Lizitazio publikoa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta kontratazailearen profilean iragartzea.

VII.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA IDAZTEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, bere onarpenera jarri dira bigarren aldiz Udal Osoko Bilkura honen aurrean.



Kontratuaren epea 40 hilabetekoa da eta epe osorako lizitaziorako oinarria BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU euro ETA LAUROGEITA BEDERATZI zentimo (278.354,89 €) gehi BEZari dagokion berrogeita hemezortzi mila laurehun eta berrogeita hamalau euro eta berrogeita hamairu zentimokoa (58.454,53 €) da.

Ormazabal ziengotziak (EH Bildu) dio aurreko aldian bi arrazoiengatik abstenitu zirela. Batetik partaidetzari ez zitzaiola behar duen garrantzirik ematen, eta bestetik, ingurumen teknikariari dagokionez, pleguetan jasota zegoela ingurumen teknikari batek parte hartu behar zuela HAPOa idatziko duen lantaldean, baina egokiago irizten zutela kanpo zerbitzu batek ematea aholkularitza hori. Horregatik abstenitu egin zirela, eta orain, erabaki horrekin koherente izanik abstenitu egin beharko luketela, baina ez direla abstenituko. Zentzu onak esaten diela HAPOa lehenbailehen egin behar dela eta oraingoan onartu egingo dutela.

Gaia aztertu ondoren eta Hirigintza, etxebizitza eta obren batzordearen proposamenen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

LEHENA.- Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko Berariazko Klausula Administrazioen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren aurrerapena idazteko zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espediente onartzea, 2024ko aurrekontuari dagokion 1.642.011.500.00 partidaren gain gastua baimendu eta lehiaketa ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea, iragarkia Kontratatzailearen Profilean eta baita Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuz.

VIII.- LAZKAOKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 20.H.J.E.KO 2. PARTZELAREN, ZUBIERRFKA, XHFHTASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.-

ULMA FORJA S. COOP. enpresak aurkeztuta, Alkatetzak 2024-01-26ko Ebazpenaren bidez, 2. Partzelaren Xehetasun Azterketari hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Onespenaren baldintza izan zen, behin betiko onespenaren unerako, horretarako egindako txosten tekniko eta juridikoetan zerrendatutako gaiak zuzenduta aurkeztea.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasierako onespenari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (30. zk., 2024-02-12) eta EL DIARIO VASCO eta BERRIA egunkarietan (2024-02-6) argitaratu da, eta jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Txosten sektorialeki dagokienez, eta Xehetasun Azterlanaren eremua Agauntza ibaiaren jabari publiko hidraulikoaren zaintza eremuaren eraginpean dagoenez, URAREN AGENTZIAko Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendariak 2024-03-14an egindako txostena jaso da. Txosten horretan, dokumentuaren aldeko txostena egiten da, baina, bertan aurreikusitako obrak egin ahal izateko, aldeztu aurretik administrazio hidraulikoaren baimena





lortu beharko dela gogorarazi da. Gainera, "Uholde-arriskuaren azterketa" izeneko txostenaren atalean, kontuan hartu beharreko zenbait aurreikuspen zerrendatzen dira.

Era berean, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2024-04-14an egindako txostena ere jaso da. Bertan, dokumentuaren aldeko txostena egin da, dokumentuaren gorputzean zerrendatzen diren zenbait aurreikuspen betetzearen baldintzapean.

2024-05-15ean Lazkaoko Udalean Xehetasun Azterketaren bertsio berria erregistratu da, 2024ko maiatzekoa, eta Udal Zerbitzu Teknikoek horren berri eman dute. Hori-etan adierazten denez, oro har, hasierako onarpenerako erabakian ezarritako baldintzak dokumentuaren bertsio berrian jaso dira, baina beharrezkoa ikusten dute indarreko Hirigintza plangintzak lurzoruen lagapenei buruz ezartzen dituen alderdi batzuk zehaztea.

Xehetasun Azterketen tramitazioa Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluaurreikuspenak bete dira.

Aipatutako aurrekariekin bat etorritz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udaltzazak bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako Zubierreka 20 Hirigintza Esku Hartze Eremeuko 2. -Partzelaren (2024ko maiatzeko bertsioa) Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Onarpena baldintza hauen mende ematen da:

1.- URAREN AGENTZIAK eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak beraien txosten sektorialetan ezarritako zehaztapenak bete beharko dira. Horien kopiak ULMA FORJA S. COOP. enpresari bidaliko zaizkio erabaki honen jakinarazpenarekin batera.

2.- Bulego berriak eraikitzeko hirigintza lizentzia eman aurretik, honako dokumentazio hauek aurkeztu beharko dira Udalean:

a.- 2.563 zenbakidun erregistro-finka Udal Administrazioari lagatzeko eskritura, 2.106,87 m²-koa, bai eta 199,55 eta 217,47 m²ko bi lursailena ere, 4.124 eta 2.204 zenbakidun erregistro finketatik datozenak, hurrenez hurren. Aipatutako lurzoruen lagapenak karga eguztietatik libre egin beharko dira.

b.- ULMA FORJA S. COOP. merkataritza sozietatearen organo eskudunak hartutako erabakiaren ziurtagiria. Bertan, konpromisoa hartu beharko da Lazkaoko Udalari lagako dizkiola, gehienez 4 urteko epean, onartutako plangintzan aurreikusitako azalerak, eremuaren iparraldeko muga daudenak, alboko bidea (1.487,76 m²) eta atzeko aldeko ubidearen ondoan aurreikusitako bidea (329,17 m²) zabaltzeko.

Hirugarrena.- Onartutako Xehetasun Azterketaren kopia bat bidaltzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren mendeko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiari, Plangintza Inbentarioan erregistradezan.



Laugarrena.- Dagozkion jakinarazpenak egiteaz gain, behin betiko onarpenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, esanez Xehetasun Azterlana aipatutako erregistroan utzi dela, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

IX.- PALESTINARI BURUZKO EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

EAJ-PNVk aurkeztutako mozioak honela dio:

"Ekialde Hurbileko muturreko indarkeria egoerari buruzko adierazpena

Palestinarrak beren lurraldetik kanporatu eta Israel legez kanpo okupatzen hasi zenetik 75 urte pasa direnean, azken 4 hilabeteotan euren armadak Gazako zatirik handiena suntsitu du eta 36.000 pertsona inguru hil ditu, horietatik gutxienez 17.000 haur, UNICEFen kalkuluen arabera, eta 81.000 zauritu utzi ditu. Gainera, beste 7.000 pertsona daude obra-hondakinen azpian. Etxebizitza eraikinen erdia baino gehiago suntsitu dira, ospitale, eskola eta azpiegitura gehienez gain. Israelek ezarritako misilek eta setioak herritarrak ur, elektrizitate eta elikagai zerbitzurik gabe mantentzen dituzte ordutik, eta UNRWAK salatu duenez, 2,3 milioi biztanleen artean 2 milioi pertsona beren hirietatik bota dituzte, eta bien bitartean bonbardaketak eta lurreko inbasio militarra jasaten jarraitzen dute. Israelgo estatua palestinar biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso indiskriminatua onartezina eta gaitzesgarria da. Biztanleria zibila, inoiz helburu militarra izan ezin duena, blokeatuta dago munduko aire zabaleko kartzela handiena deitzen duten horretan. Aldi berean, asko kezkatzen gaitu Zisjordanian Israelgo armadak eta kolono juduek eragindako indarkeriak, bereizi gabe tiro eginez eta palestinarren jabetzak suntsituz; azken hori 2024/02/01ean ere aitortu zuen Biden administrazioak.

NBEko agintzick hondamendi humanitariotzat jo duten egoera horren aurrean, Lazkaoko Udaleko osoko bilkurak:

- 1. Uste du Israelgo Estatua biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso bereizi gabeak eta kolektiboak ez dituela inongo gertakarik justifikatzen, ezta Hamasek iragan urriaren 7an Israelgo biztanleria zibilaren aurka egindako eraso terrorista gordinak, onartezinak eta gaitzesgarriak direnak. Israelen erasoek milaka hildako, Gazako lurraldearen erabateko suntsipena eta biztanleria osoaren nahitaezko desplazamendua eragiten ari dira.*
- 2. Su-eten osoa eta mugagabea, Gazako erremuan oinarrizko horniduren blokeoa etetea, herritarrak euren lurraldera itzultzea eta Zisjordaniako palestinarren aurkako erasoak amaitzea eskatu du, urriaren 7tik gogortu egin baitira.*
- 3. Israelgo Estatuari exijitzen dio atxiloketa administratiboaren babespean modu arbitrarioan atxilotutako presoak berehala aska ditzala (kargurik eta epaiketarik gabeko atxiloketa, mugarik gabe berritu daitekeena). 6.000 palestinar inguru atxilotu dituzte prozedura honen bidez, eta horien artean ehunka adingabe daude. Amnistia Internazionalak salatu du hori.*

- 4. 2023ko urriaren 7tik bere esku dituen bahitu guztiak berehala askatzeko eskatzen dio Hamasi.*





5. Nazioarteko legedia betetzea eta Israelgo Estatuak sistematikoki mespretxatu dituen NBEren ebazpenak betetzea eskatzen du.

6. Laguntza humanitaria etengabe eta murrizketarik gabe sartzen uztea eskatzen du, herritarrei ura, elektrizitatea, erregaia, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskuratzea berrezarrit. Era berean, Lazkaoko Udala prest agertu da Palestinatik datozen errefuxiatuak hartzeko, eta NBEk Palestinako errefuxiatuak artatzeko duen erakundeari babesa adierazi dio UNRWari, bai eta Palestinaren alde lan egiten duten erakundeei dirua bideratzeko konpromisoa ere.

7. Gazako egoera jasanezina dela eta hondamendi humanitario are handiagoa gertatzeko arriskua dagoela ikusita, EB/Israel Elkartze Akordioaren premiazko ebaluazioa egin dezala eskatzen diogu EBri, giza eskubideen eta printzipio demokratikoen arloko harremanaren funtsezko puntuak betetzen ari diren iker dezan eta, bete ezean, neurri egokiak hartzen.

8. Europar Batasunaren (EB) Israeldar eta Palestinar arteko Bake Integralerako Plana babesten dugu, eskualdean bake iraunkorra ezartzeko eta egungo indarkeria-egoerari aurre egiteko, bai eta erradikalizazio handiagoa eta gatazka berriak ere. Plan Integralak, besteak beste, aurreikusten du EBren, Egiptoren, Jordaniaren, Saudi Arabiaren eta Estatu Arabiarren Ligaren arteko Prestatzeko Bake Konferentzia antolatzea, Gazako gerrari, baina batez ere Palestinaren eta Israelen arteko gatazkari, ekiteko. Horretarako, Bake Plan bat egingo da, Israelentzat eta etorkizuneko Palestinako Estatu independentearentzat segurtasuna bermatu behar duena, eta bakea lortzen denean zer mekanismo politiko eta segurtasun-mekanismo eta beste akordio eta proiektu jarriko diren abian ezarriko da.

9. Palestinarren eta israeldarren bidezko asmoei erantzun bakarra emateko, bakean eta lankidetzan, bideragarriak diren bi estaturen konponbidearen ikuspegia eta beharra babesten ditu, baita bakerako eta segurtasunerako funtsezko elementu gisa ere. Ildo horretan, Lazkaoko Udalak dei egiten die estatuei eta nazioarteko erakundeei Palestinako estatuaren aitortza ofiziala egin dezaten.

10. Ildo horretan, oso positibotzat jotzen du Espainiako, Irlandako eta Norvegiako estatu-ek gauzatutako Palestinako Estatuaren onarpena, eta espero du neurri hori beste estatu batzuek jarraitzea, Israeli presioa egiteko modu bat izan dadin, erasoak berehala eten ditzan eta ezinbesteko bake-prozesua berriro bultzatzen irmo lagun dezan.

11. Dei egiten dio Israelgo Estatuari Nazioarteko Justizia Auzitegiaren ebazpenak bete ditzan, bereziki Hagako epaimahaiaren ebazpena, Hegoafrikak Gortean aurkeztutako salaketaren aurrean, non genozidio kasu bat den ikertzeko "ebidentzia juridiko nahikoak" daudela nabarmentzen duen. Era berean, genozidioa eragozteko neurriak hartzeko eskatzen dio Israelgo Estatuari, eta, aldi berean, Gazara laguntza humanitaria iristen uzteko eskatzen dio.

12. EBri eta nazioarteko erakundeei dei egiten die atsedetik gabe jardun dezaten eskualdean bake egonkorra eta iraunkorra lortzeko, Palestinako Herriaren biziraupena baldintza duin eta bideragarrietan eta Israelgo Estatuaren segurtasuna bermatzeko."



Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio aurreko Osoko Bilkuran Alkateak proposatu zuela bi taldeen adierazpen bateratu bat aurkeztea, eta harridura handiz hartu zutela händik egun gutxira Udalak aldebakartasunez adierazpen instituzionala argitaratzea. Horrek ekarri zuela beraiek adostasun bila ez jarraitzea, eta beren mozioa bera ere erretiratu egin zutela.

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) erantzun dio aurreko Osoko Bilkuran saiatu zirela adostasun batera iristen, eta EH Bilduren azken hitza izan zela "genozidio" hitza ez bazuten sartzen ez zutela onartuko. Hortik aurrera ez direla gehiago saiatu, eta beraientzat garrantziko gaia dela eta horregatik sartu dutela mozio hau.

Hau guztia honela, eta gaiari buruz eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV) eta aurkako 6 botorekin (EH Bildu), mozioa onartu du.

X.- EKAINAK 28, LGTBI+ HARROTASUN EGUNARI BURUZKO EAJ-PNVK ETA EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

EAJ-PNVk eta EH Bilduk batera aurkeztu duten mozioak honela dio:

"LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna (2024)

Ekainaren 28an, LGTBI kolektiboaren, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunean, aniztasunetik, eskubide eta bizikidetzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, eta kolektibo honen eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatzen ditugu. Halaber, egun hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik bcnctako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogorarazteko ere bada.

Berdintutik, Eusko Jaurlaritzaren LGTBI kolektiboari informazioa eta laguntza emateko zerbitzu publikotik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu sexu askapenaren aldeko borrokaren alde ahaleginak hatu dituzten pertsona eta erakunde guztiei. Bere dedikazioari, konpromisoari eta ausardiari esker, gaur lorpen garrantzitsuak aspa ditzakegu giza eskubideen eta eskubide sozialen arloan. Pertsona horiek, beren eguneroko lanarekin, funtsezko zutabea izaten jarraitzen dute gizartearen sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eraldatzeko, eta inqurune inklusiboagoa eta e respetuzkoagoa sortzen laguntzen dute.

Hala ere, pertsona guztien berdintasunean aurrerapen ukaezinak egin diren arren, oraindik diskurtso LGTBifobikoen albiste kezagarriak iristen dira, lortutako lorpenetan atzerakada bat dakartenak. Diskurtso horiek, gehienetan ezjakintasunetik eta gorrototik eratorriak, lortutako aurrerapenak desagerraraztea eta diskriminazioa iraunaraztea bilatzen dute. Beraz, funtsezkoa da gizarte gisa erne eta tinko egotea eskuratutako eskubideen defentsareil alde; hala, sexu- eta genero aniztasunarekiko duintasuna eta errespetua kaltetzeko edozein ahalegin baztertuko dugu.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikusgarritasunak gizarte gisa aurrera egiteko aukera ematen digu. Aniztasun hori aitortzea eta ospatzea, justizia-ekintza izateaz gain, komunitate gisa aberasteko aukera ere bada. Ez dugu inolako atzerapausorik onartuko. ko-





lektibo osoko ehunka lagunen ahaleginari esker lortutako eskubideetan. Irabaitako esku-bide bakoitza gizarte bidezkoago eta gizatiarrago baterako urratsa da.

Horregatik guztiagatik, ekainaren 28ak are garrantzi handiagoa hartu du. Berdin-du! tik herritarrak ekintzetan parte hartzera animatzen jarraitzen dugu, gorroto-diskurtsoak eta giza eskubideen urraketak irmo salatzeke. Funtsezkoa da guztiok injustiziaren aurka ozen mintzatzea, eta elkarrekin lan egitea diskriminazio mota oro desagerrarazteko. Ekintza kolektiboaren bidez bakarrik lortu dezakegu benetako aldaketa iraunkorra.

Badakigu sexu- eta genero-aniztasunaren onarpen soziala gero eta handiagoa dela, neurri batean euskal gizarte osoaren elkarlanari esker. Lan hori funtsezkoa izan da armairurik gabe, loturarik gabe, aurreiritzirik gabe eta estigmatik gabe bizi ahal izateko, eta komunitatea eraikitzeke. Babes- keinu bakoitzak, ikusarazte-ekintza bakoitzak, mugimendu hori indartzen eta aurrera jarraitzeke gure erabakia berresten laguntzen du.

Horrenbestez, sentsibilizazio eta aldarrikapen-ekitaldiekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu: leihoetatik eta balkoietatik kolore anitzeko banderak zintzilikatu. Keinu txiki baina esanguratsu hori elkartasunaren eta babesaren erakusgarri da, eta agerian uzten du gaur aniztasunaren aldeko borroka eguna dela. Astintzen dagoen bandera bakoitza erresistentziaren eta itxaropenaren sinboloa da, atzera egiteke prest ez gaudela dioen adierazpena, hain zuzen.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu LGTBI eskubideen aldeko borroka guztion borroka dela. Ezin dugu onartu gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi ahal izango garen etorkizun bat eraikitzeke. Horregatik, egun honen karira herrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzera dei egiten dizuegu lazkaotar guztioi.

Lazkaoko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Gizarte atseginagoa, bidezkoagoa eta integratzaileagoa eraikitzeke lanean jarraituko duela, gerta daitekeen edozein indarkeria motaren aurrean, homofobia eta transfobia barne, erabateke gaitzespena erakutsiz.

2. Lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen eta intersexualen eskubideen defentsan "LGTBI Harrotasuna" Nazioarteko Eguna ospatzea babestuko duela, haien ikusgarritasuna eta gizarte-sentsibilizazioa bilatzeko.

3. Tokiko LGTBI mugimenduko kideekin batera, kolektiboaren diagnostiko bat egin eta elkarlana bultzatzeko konpromezua hartzen du."

Hau guztia honela, Osoko Bilkurak, aho batez, mozioa onartu du.

XI. GALDERAK ETA ERREGUAK.-



Ez da galderarik egon.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA

